

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2023-2024 denboraldia
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

20. astea (2024ko maiatzaren 13tik 19ra)

COVID-19aren diagnostikoek gora egiten jarraitzen dute, bai lehen mailako arretan eta baita ospitalarioan ere. Gripe-birusaren zirkulazioa eta bronkiolitisaren diagnostikoak balore baxu eta egonkorretan mantentzen dira.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 279,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (293,0/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasak nahiko egonkor eta balio baxuetan mantentzen dira.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 30 lagin jagoleen % 53,3 baieztatu da, 3 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 10,0) eta 2 gripe-birus (positibotasuna % 6,7) atzeman direlarik. Ez da ABSik detektatu, baina bai 8 errinobirus eta 3 parainfluenza birus.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 11,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,6/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 123 SARS-CoV-2 eta 5 gripe-birus erregistratu dira, baina ez ABSik.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 279,0 kasukoa izan da (293,0/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 218,6/100.000 izan da Araban, 279,5/100.000 Bizkaian eta 306,2/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1238,6 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urteko adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 332,6 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan, 5 urtetik beherakoetan izan ezik.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute aurreko astearekin alderatuta ESI gehienetan.


AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 20. astea	Tasa 19. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	238,5	253,6	0,94 (0,85-1,04)
Arabar Errioxako ESI	374,9	392,0	0,96 (0,63-1,45)
Barakaldo-Sestaoko ESI	242,5	287,9	0,84 (0,72-0,98)
Barrualde-Galdakaoko ESI	300,6	304,5	0,99 (0,90-1,08)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	311,0	332,3	0,94 (0,86-1,02)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	292,5	333,6	0,88 (0,77-0,99)
Uribeko ESI	191,7	206,4	0,93 (0,81-1,06)
Bidasoako ESI	237,5	259,6	0,92 (0,75-1,12)
Debarrenako ESI	373,9	333,4	1,12 (0,94-1,33)
Debagoiengo ESI	253,3	215,8	1,17 (0,94-1,47)
Donostialdeako ESI	270,5	294,3	0,92 (0,84-1,00)
Goierrri-Urola Garaia ESI	381,4	372,0	1,03 (0,89-1,19)
Tolosaldeako ESI	367,1	332,9	1,10 (0,92-1,32)

Gripe-sindromearen tasa aste honetan 1,4 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (1,3/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 76,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (124,8/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 30 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 53,3 baieztatu dira. 3 SARS-CoV-2 eta 2 gripe-birus (A(H1)pdm09 bat eta B motako bat) atzeman dira, baina ez ABSik. 8 errinobirus eta 3 parainfluenza birus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoen arabera. 2023-2024, EAE



SARS-CoV-2aren positibotasunak gora egiten jarraitzen du eta aste honetan % 10,0an kokatu da (% 8,7 aurreko astean). Gripe-birusaren eta ABSren positibotasunak % 10etik beherako balioetan mantentzen dira (% 6,7 eta % 0,0, hurrenez hurren). Errinobirusaren positibotasuna % 26,7koa izan da (% 23,9 aurreko astean) eta parainfluenza birusarena % 10,0koa (% 10,9 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	20. astea		19. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	2	6,7	0	0,0	244	15,5
SARS-CoV-2	3	10,0	4	8,7	85	5,4
ABS	0	0,0	0	0,0	91	5,8
Metaneumobirus	0	0,0	1	2,2	99	6,3
Parainfluenza	3	10,0	5	10,9	56	3,6
Adenobirus	0	0,0	1	2,2	37	2,4
Errinobirus	8	26,7	11	23,9	316	20,1
Urtaroko CoV	2	6,7	1	2,2	97	6,2

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 11,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,6/100.000 aurreko astean), 11,2/100.000 emakumeetan eta 12,2/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 32,4 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 19,3 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5 urtetik beherakoetan eta 15-44 eta 45-64 urteko adin-taldeetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2ak goranzko joera mantentzen du eta aste honetan % 16,2an kokatu da (% 7,2 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 1,4koa izan da (% 0,7 aurreko astean) eta ABSrena % 0,8koa (% 0,9 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 29,4koa izan da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	20. astea		19. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	173	16,2	152	7,2	8300	8,6
Influenza	146	1,4	135	0,7	7752	15,7
ABS	125	0,8	106	0,9	6481	12,2

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 123 SARS-CoV-2 eta 5 gripe-birus detektatu dira azken astean, baina ez ABSik.

Aste honetan detektatutako 5 gripe-birusetatik, 4 A motakoak izan dira eta bat B motakoa. 2023/40 astetik 6131 detekzio erregistratu dira, 6088 (% 99,3) A motakoak eta 43 (% 0,7) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1867 birusetatik, 443 (% 23,7) A(H3) eta 1424 (% 76,3) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, PCR bidez azterturiko SARS-CoV-2aren apirileko lagin positiboen % 40,6 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 58,9), XDK (% 14,3) eta KP.3 (% 12,5) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 20. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 13,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (8,4/100.000 aurreko astean); 13,5 gizonetan eta 13,0 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 53 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (31 ospitaleratu aurreko astean), 23 gizon eta 30 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 86,8 60 urtetik gorakoa izan da.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoen eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 20. astean, 8 COVID-19 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (3 aurreko astean). Kasuak izan dituen zentro soziosanitario kopurua 6 izan da, aurreko astean baino 3 gehiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko maiatzaren 22an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**